

# Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA



**Aurreikusita dago 2011ko udan lurpeko lanak amaitu eta eraikina altxatzen hastea**

## Getxo Antzoki berria egiteko lanen 3. fasea hasi da

**A**ste honetan bertan hasi dira Getxo Antzoki berria eraikitzekeko proiektuaren 3 FASEko lanak. Lurpeko egitura eraikitzekeko lanak dira, hain zuzen ere.

Fase honekin eraikin bera altxatzeko faseari eman zaio hasiera. Lanak 2.575.000 eurotan esleitu dira, hots, lizitazioaren diru-kopururik handiena baino %23 gutxiago, eta obra planaren arabera, 7 hilabeteko iraupena izango dute. Hartara, fase hau 2011ko uda hasierarako amaituta egongo dela uste da, lehiaketaren arau-oinarrietan jasotakoa baino 6 hilabete lehenago. Hirigintza arloko zinegotziak, Joseba Arregik, adierazi duenez "uste dugu datorren urteko udan Antzoki berriaren lurpeko egituraren eraikuntza amaituta edukiko dugula, baita aparkalekuaren eremua. Horregatik lurpeko lanak amaitutzat joko dugu eta eraikina altxatzen hasiko gara".

Hirugarren fase honetan oinarritzko egitura-elementuak sortuko dira. Erabilera askotako aretoak, bi auditorio, erabilera anitzeko gunek, tresneria-eremuko gelak, bulegoak, aldagelak, komunak eta biltegiak izango dira, guztiak ingurune berean egongo dira elkarri lotuta, esparruak aprobetxatu eta partekatzekeko helburuarekin. Elementu hauek guztiak, ikuskizunak muntatu eta kentzeko erabiliko den - eta orain egiten ari diren -aparkalekuarekin batera, Getxo Antzoki berriari zerbitzua emango dioten lurpeko ekipamenduak izango dira.

Eraikina bera eraikitzekeko 3. fasearen ondotik etorriko da 4. bat, non itxiturak (eraikineko trenkada-multzoa, instalazioak eta akaberak, dena amaitu arte) eta urbanizatzeko lanak (plaza eta inguruen akabera lanak) egingo diren. Espero da Getxo Antzoki berria eta Musika Eskola 2013an inauguratu ahal izatea.

### Bazenekien...

...Instalakuntza eszenikoetako teknikari profesionalak Getxo Antzokia diseinatzeko ari den arkitekto taldearekin lan egiten ari direla egiturari, makinariari, eta eszenako instalakuntzei (tartean eszenatikaren eta aretoen argiztapena, akustika, aretoen ekipamenduak, aldagelak eta abar) lotutako gaietan, ikuskizunaren kalitate maila handienak lortze aldera...?

### ORAINGO LANAK

#### • APARKALEKUKO SOLAIRUAK

Gaur egun Aparkalekuaren bigarren fasean solairu-etako maila desberdinen egiturarako lanak eraikitzen ari dira aurrera. Elizako aldean bigarren forjaketa egiten ari dira eta hirugarrena prestatzen ari da. Basagoitiko aldean zolarria eta lehenengo solairua egin dituzte. Andrés Cortinako aldean sartzeko arrapala dago.

#### • HIRUGARREN FASERAKO EGOKITZEA

3A Fasean ingurua egokitzekeko prestaketak burutu dituzte eta era berean beste garabi-dorre bat jarriko da obraren alde honetarako eta egun lanean ari diren beste biekien batera lan egingo du.



## Lurazpiko hiru solairu ikuskizunaren mesedetara

**H**emendik gutxira hasiko diren lanek eraikin berriaren zimenduak ipintzea ahalbidetuko dute eta gainera Getxo Antzokian eta Musika Eskolan izango den kultur eskaintzari zerbitzu desberdin batzuk eskaintzeko gune anitzen egitura eraikitzea ere. Zimendatzea eta egitura batez ere hormigoizko armatuzkoa izango dira. Lur azpiko guneen egiturak hiru soto-maila edukiko ditu, goitik behera, lehenengo maila, bigarrena eta hirugarrena.

Lehenengo eta bigarren mailatan Antzokiaren berezko ekipamenduak izango dira, hau da, Hitzaldi Aretoa (H Aretoa), Auditorio Alternatiboa (B Aretoa), Foyera edo gune batzuek bat egiten duten alde komuna, eta ikusleentzako atsedenezko gunea; batzarretarako hall duplexa (erabilera anitzetarako), aktoreentzako aldagelak, atsedenezko aretoa eta biltegiak. Horiekin batera Musika Eskolako aretoak ere izango dira, hau da, Auditoriuma (D Aretoa), ikasteko lau kabina, instrumentuen lau gela, perkusio aretoa, bulegoak, bilera aretoa, aldagelak, ko-

munak eta biltegiak. Hori guztia inguru komunean eta elkarren lotuta, esparru batzuk aprobetxatu eta partekatu ahal izateko.

Hirugarren mailan mota honetako eraikinaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren ezaugarri desberdinetako instalakuntzak baino ez dira egongo.



## Saria Getxo Antzokiaren Arkitektoarentzat

**L**uis María Uriartek, Getxo Antzokia egongo deneko eraikin berezia diseinatu duen arkitektoak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren esker ona jaso du Galdakaoko haur eskolari egindako ekarpenagatik. Bere kideen ustetan, Uriartek eraikin horretarako landutako diseinuak etxea erabiliko duten herritarren, kasu horretan eskualdeko hau-

rreren beharretara egokitzekeko konpromisoa uzten du agerian arkitektoak. Horregatik, joan den azaroaren 4ean Berrikuntza Saria jaso zuen Urduñan, Hemendik Durangaldeak eta Deia egunkariak Durangaldeako eskualdea alor desberdinetan urte osoan zehar lan egiten duten pertsoneri eta elkartei esker ona emateko antolatutako ekitaldian.

### Zehatz-mehatz

Gaur egun Andres Cortina kalea egokitzekeko plan bat egiteko lan egiten ari da, aparkalekuaren egitura eta iragazgaiztea amaitzen denerako eta "estalkia" ipintzen denerako, aldi berean parkingaren barruan lan egiten segitu ahal izateko eta kalea behin betiko urbanizatzeko. Horrela publikoarentzat aurretik aurreikusitakoa baino lehenago zabaldu ahal izango litzateke.



### Bere Iritzia...

**WE ARE STANDARD**  
nazioarteko ospea duen pop-rock taldea

Lehenengoz esan nahi duguna da guztiz beharrezkoa zela. Proposamena ona edo ez hain ona izango da; programazioa agian ez da guztion gustukoa eta norberaren ikuspuntuaren arabera ondo edo txarto gestionatuko dute; baina antzoki bat beharrezko baino beharrezkoagoa zen Getxon; barkaezina zen ez edukitzea. Getxon kultur gunea dagoela pentsatu dugu beti, beti egon dela.

Denok beste hiri handiago batzuetan beren ibilbide artistikoa garatzen dauden aukerak ezagutzen ditugu; guk geuk bidaietan getxotara asko ezagutu ditugu; Brooklyn argazkilaria edo Londonen pintore lan egiten duten getxotarrak, Madrilerara edo Bartzelonara joan direnak ahaztu gabe. Zergatik joan dira? Guri askotan galdetu digute ea zergatik ez garen kultur mugimendu handiago eduki dezakeen beste hiri handiago batera bizitzera joan. Gure bizitokia gustatzen zaigu, ez dugu alde egin nahi. Handiagoak eta kosmopolitagoak diren hiri horien bertuteak estimatzen ditugu, baina neurri batean ez dugu behar. Getxon horri buruzko beste ikuspegi bat egotea gustatuko litzaziguke. Antzokia herriak zuen kultur eraikin ezari aurre egitera etorriko da. Espero dugu antzerkiko, musika klasiko, jazz, dantza eta beste kultur eragile batzuk asetzera. Entsaizteko aretoak ziren eza horietako bat. Espero dezagun ondo funtzionatzea eta talde asko sortzea. Baina rock kontzertarako aretoa falta dela pentsatzen segitzen dugu. Bere garaian bi izan ziren udalerrian eta hain zuzen ere Getxok bere soinua propioa, Getxo Sound, eduki zuenena izan zen, oso onartua dena eta gure herriari ematen dio izena. Getxoak gure esaten dugun bakoitzean musikari buruz zerbaitekin edozeinek 90eko talde horietatik galdetzen digu, herriaren izena mundutik eraman zutena. Artistak eta kultur mugimenduak esportatzen baditugu zergatik ez dugu zaintzen? Zergatik uzten dugu horiek alde egitea bertan geratu eta herria aberastu behar? Zer behar dute? Espero dezagun Antzokiak helburu horren parte bat lortzea laguntzea.

Arkitektura mailan, oso interesgarria da. Luis Mari Uriartek konfiantza osoa dugu. Baina gogoratu behar dugu garrantzitsuena ez dela kanpoko edukiera baizik. Antzokiaren kalitatea zehaztuko duena bere programazioa eta funtzionamendua izango dira. P.D. Getxon Jazz, Blues, Itsas-abestiak, Folk Jaialdiak... baldin badaude. Zergatik ez Rock Jaialdia?